

**Goi
Mailako**

**Arte
plastikoak
eta diseinua**

Argazkigintzako goi mailako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

Argazkigintzako goi mailako teknikaria Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Emandako zehaztapenetatik abiatuta, eskatutako argazki lanak gai, estilo eta komunikazio arloan bete beharreko ezaugarriak zehaztea

Argazki proiektuaren erreferentziak dokumentuak eta materialak hautatu eta aztertzea

Esleitutako lanetarako argazki aukerak proposatu eta ideiak iradokitzea

Argazki irudiari pertsuasio, informazio eta/edo identifikazio elementuak ematea, eskatutako lanaren helburuarekin bat datozenak

Eskatutako argazki lana egitea ondoren erabiliko den komunikazio bidea edo euskarria kontuan hartuta, eta komunikazio-bitarteko grafikoa efizienteenez hornitzea

Argazkigintzako teknikak eta formatuak ongi ezagutzea, alderdi teorikoak nahiz praktikoak, eta maila profesionalean eskatu beharreko kalitateaz baliatzea

Argazkiaren prozesua garatzea etapa guztiekin: egitea, prozesatzea, produkzio ondokoa eta aurkezpena, kasuan kasuko kalitate kontrolekin

Argazki dokumentuak artxibatu, indexatu eta berreskuratzeko teknikak, nazioarteko estandarren arabekoak, ezagutu eta menperatzea

Material eta tresneria profesionalen berezitasunak ezagutzea, bai eta nola zaindu eta haien mantentze-lana nola egin ere

Jarduera profesionalaren gaineko araudia ezagutu eta betetzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau eskuratzen dutenek profesional autonomo eta besteren konturako langile gisa lan egiten dute. Beste profesional batzuekin batera lan egin dezake, ideiak edo kontzeptuak transmitituz bitarteko eta euskarri desberdinetan argitaratu beharreko argazki produktuen bidez. era berean, bere gaitasunak bete ditzake sortzaile independente gisa edo enpresa edo lantalde batean soldatapean lan egiten duen errealizatzaile gisa.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/artes-plasticas-grado-superior

Arte plastikoak eta diseinua

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Kazetaritza argazkilaria. Informazioaren alderdi grafikoa jasotzea hedabide desberdinentzat.
- Erreportaje sozialetako argazkilaria. Ekitaldi sozialetako dokumentazioa eta erretratuak.
- Publizitate argazkilaria. Publizitate agentzietarako, diseinu grafikoko estudioetarako eta irudi bankuetarako lanak.
- Moda argazkilaria. Moda diseinatzaileek, fabrikatzaileek, banatzaileek eta aldizkariak enkarguz eskatutako lanak.
- Arkitektura eta barne-dekorazioko argazkilaria. Argitaletxe lanak, dokumentazioa eta obraren jarraipena.
- Arte argazkilaria. Bere lana egitea arte-salerosketaren zirkuiturako.
- Aztarnategi arkeologikoetako argazkilaria.
- Argazkigintza digitalaren produkzio ondokoa.
- Auzitegi-medikuntzako argazki laborategirako teknikari espezialista.
- Artelanen kontserbazio eta zaharberritzeko argazki laborategiko teknikari espezialista.
- Argazki artxiboko eta irudi bankuko teknikari espezialista.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Ikusizko irudikatzearen eta adierazpenaren oinarriak.
- Irudiaren teoria.
- Baliabide informatikoak.
- Argazkigintzaren historia.
- Argazkigintza teknika.
- Ingelesa I / II.
- Ikus-entzunezkoen hizkuntza eta teknologia I / II.
- Argazkigintzako proiektuak I / II.
- Argazkigintzaren teoria.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Proiektu integratua.
- Prestakuntzaldi praktikoa enpresetan, estudioetan eta lantegietan.